

URTEKO KUDEAKETA PLANA

2.024-2.025. ikasturtea

UDARREGI IKASTOLAREN XEDEA, IKUSMIRA ETA BALIOAK PLAN ESTRATEGIKOAREN BAITAN

Xedea ikastolaren izatearen arrazoia da eta nor garen, zein den gure izatearen arrazoia eta norentzat dihardugun azaltzen du.

XEDEA EDO MISIOA

Udarregi ikastola, Usurbilgo 0-16 urte bitarteko ikasleriari hezkuntza akademiko nahiz giza-baloreetan ardaztutako formazio sendoa eskaintzen dion Irakaskuntza Elkartea da. Euskararen sustapenarekin eta euskal kulturaren garapenarekin konprometitua dago eta bertako langileria konpetentean nahiz interes-taldeen partaidetzan oinarrituta dagoen.

Ikusmirak, berriz, epe ertainera izan nahi dugun organizazio mota eta honen jomuga deskribatzen ditu.

IKUSMIRA

Usurbilen eta gure hezkuntza komunitatean prestigioa bermatua duen ikastola izan nahi dugu, erreferente bat izanik honako ezaugarri hauengatik:

- Ikasleriaren heziketa integrala, hezkuntza oinarrizko konpetentziak ardatz bilakatur.
- Langileria konpetentea.
- Koordinazio pedagogikoa, elkarlana eta etengabeko formazioa.
- Euskararen eta euskal kultur ondarearen transmisioan konprometitua.
- Interes- taldeen partaidetza eta herriko erakundeekin elkarlana.
- Zerbitzuen egokitasuna.
- Kalitatezko kudeaketa.

Azkenik, balioek edo printzipioek organizazioaren oinarrian dagoen filosofia eta hautu pedagogikoa islatzen dute eta xedearen eta ikusmiraren euskarriak dira.

BALIOAK EDO PRINTZIPIOAK

- Euskalduna.
- Berritzailea.
- Elkarlanean oinarritua.
- Etengabeko formazioaren sustatzailea.
- Erantzukizunezko partaidetzaren bultzatzailea.
- Interes-taldeekiko komunikazio eta harreman ona, estua, konfiantzazkoa.
- Partikular tasunetik unibertsalerako bidean, kultur ezberdinen integratzailea, giza-bazterketaren aurkakoa eta solidarioa.
- Etengabeko hobekuntza printzipioetan oinarritutako kudeaketa sistema.
- Naturaren eta ingurunearen zaintzan, babesean, eta garapen orekatuan inplikaturako erakundea.

2.024-2.025. ikasturte honetan beraz, 2.024-2.028. urteetako Plan Estrategikotik abiatzen gara. Datozen urteetarako jarritako helburuak, hiru arlotan antolatu dira: arlo pedagogikoa lehenik, antolaketa, partaidetza eta komunikazioaren arloa bigarrenaz eta azpiegituren arloa hirugarrenez.

Jarraian, arlo bakoitzerako zehaztutako helburuak, arrazoiak, jarduerak, arduradunak eta denboralizazioa deskribatzen dira.

1. ARLO PEDAGOGIKOA

| 1.1. Helburua: Marko pedagogikoa berdefinitzea Euskal Curriculumean eta Curriculum Berrian oinarrituz. | | | |
|--|---|--|------------------------|
| Zertarako | Jarduerak | Arduraduna | Denboralizazioa |
| Zer eta nola ikasi behar duten ikasleek eta horretarako irakasleek zer eta nola irakatsi behar duten zehazteko. | 1.1.1. Pertsona eredu eta irteera profila zehaztu. | Zuzendaria. Zuzendaritza. | Abendua |
| | 1.1.2. Diagnostika egin; ahulgune eta indarguneak identifikatu. | Zuzendaria. Zuzendaritza. | Abendua |
| | 1.1.3. Etapa desberdinen arteko koherentzia mantenduaz, etapa bakoitzean zer, zertarako eta nola egingo dugu? | Ikasketa buruak. | Martxoa |
| | 1.1.4. Ongizate emozionala adin guztietan lantzeko jarduerak zehaztu eta martxan jarriko ditugu. Hara nola, Gorputzaldiak, Biodantza, Ongizate emozionala eta fisikoa arloa, eguneroko harrera... | Etapetako Orientazio departamentuak. Ikasketa buruak. | Abendua |

| | | | |
|--|---|-------------------------------------|----------|
| | 1.1.5. Pantailaren erabilera egokia sustatu; erabilera eta behararen inguruan egindako azterketan oinarrituz, aurrera begirako erabakiak hartu. | IKT arduraduna. Ikasketa buruak. | Martxoa |
| | 1.1.6. Digitalizazio plana eguneratu. | IKT arduraduna. Zuzendaria. | Apirila. |

| 1.2. Helburua: Ikastolako hizkuntza proiektua eguneratzea. | | | |
|---|---|-------------------------|------------------------|
| Zertarako | Jarduerak | Arduraduna | Denboralizazioa |
| Ikasle euskaldun eleanitzak hezteko. | 1.2.1. Hizkuntzaren kudeaketa Plana egin. | Hizproko arduraduna. | Iraila. |
| | 1.2.2. Ikastolako hizkuntz egoeraren diagnosia egin: Ullibarri, Branka eta neurketak egin eta plataforma ofizialetan datuak jaso. | Hizproko arduraduna. | Iraila-Urria. |
| | 1.2.3. Euskararen inguruko dinamizazioa sustatuko du Euskaraz Bai lantaldeak Ikastolan: Euskararen astea | Euskaraz Bai lantaldea. | Ikasturtean zehar. |

| | | | |
|--|---|---------|--------------------|
| | etab. | | |
| | 1.2.4. Kanpoko eragileen laguntzaz, euskarari lotutako jarduera desberdinetan parte hartuko du Ikastolak. | Hizpro. | Ikasturtean zehar. |
| | 1.2.5. Udalak antolatutako Euskara errefortzuen antolaketan lagunduko du Ikastolak. | Hizpro. | Iraila eta ekaina. |
| | 1.2.6. Hizkuntz erreferenteak geletara gonbidatu (idazleak etab.). | Hizpro. | Ikasturtean zehar. |

| 1.3. Helburua: Euskal kulturaren transmisioa egitea. | | | |
|---|---|-------------------|------------------------|
| Zertarako | Jarduerak | Arduraduna | Denboralizazioa |
| Gure kultura balioan jarri eta sustatzeko. | 1.3.1. Herriko nahiz Euskal Herri osoko kultur erreferente izanak eta direnak ezgutarazi. | Ikasketa buruak. | Ikasturtean zehar. |
| | 1.3.2. Kultur erreferenteak | Ikasketa buruak. | Ikasturtean zehar. |

| | | | |
|--|---|------------------|--------------------|
| | geletara gonbidatu. | | |
| | 1.3.3. Herriko nahiz Euskal Herri osoko kultur ondarea ezagutarazi. | Ikasketa buruak. | Ikasturtean zehar. |

| 1.4. Helburua: Langileen formazioa, koordinazioa, ardura banaketa eta ebaluazio kultura sustatzea gure pedagogian. | | | |
|---|---|---|--|
| Zertarako | Jarduerak | Arduraduna | Denboralizazioa |
| Langileak, beren jardunak Ikastolaren osotasunean eskatzen dien lan ezberdinetan kompetenteak izateko. | 1.4.1. Formazio planean islatuko da: Ikastolen Hezkuntza Marko Orokorraren inguruko formazioa jasoko du klaustroak eta bestalde, EHIEk eta bestelako erakundeek antolatutako askotariko ikastaroak eskaini langileei. | Zuzendaria. | Markoa: Iraila-otsaila. Ikasturtean zehar. |
| | 1.4.2. Koordinazioa: etapa edo ziklo barnekoa eta etapa arteko koordinazioa egingo da. | Koordinatzaileak eta Zuzendaritza. | Maiztasuna? Koordinatzaileena eta gainerakoena? |
| | 1.4.3. Zereginak aurrera eramateko, lantaldeen berrantolaketa egingo da. Langile guztiek lantalderen batean gutxienez parte hartuko | Koordinatzaile eta ikasketaburuek elkarrekin. | Iraila. |

| | | | |
|--|--|---------------|------------------------|
| | dute. | | |
| | 1.4.4. Ebaluazio kultura sustatuko da: langilegoaren artean ebaluazio bideak zehaztu eta ondoren, ebaluazioa martxan jarriko da (adibidez proiektu bat elkarrekin aurrera eramatean, tutorekideen artean etab...). | Zuzendaritza. | Bigarren hiruhilekoan. |

| 1.5. Helburua: Ikastolako Hezkuntza proiektua berritzea (egokitzea ez da egokiagoa?). | | | |
|--|---|-------------------|------------------------|
| Zertarako | Jarduerak | Arduraduna | Denboralizazioa |
| Langile orok Ikastolako proiektua ezagutu eta norabide berdinean lan egiteko. | 1.5.1. Proiektua berrikusi eta behar dena aldatu. | Zuzendaria. | Maiatza. |

2. ANTOLAKETA, PARTAIDETZA ETA KOMUNIKAZIOAREN ARLOA

| 2.1. Helburua: Zerbitzuen antolaketa eguneratzea. | | | |
|---|--|-------------------|------------------------|
| Zertarako | Jarduerak | Arduraduna | Denboralizazioa |
| Erabiltzaileen eta langileen uneko beharrei erantzuteko. | 2.1.1. Jangela, garraioa eta goizeko zaintza antolatu eta kudeatu. | Idazkaritza. | Ikasturtean zehar. |
| | 2.1.2. Jangela Batzordearen bilerak egin. | Zuzendaria. | Hilean behin. |

| 2.2. Helburua: Barne araudia eguneratzea. | | | |
|---|--|-------------------|------------------------|
| Zertarako | Jarduerak | Arduraduna | Denboralizazioa |
| Langileek Bertan jasotzen diren zehaztasunak ezagutu eta norabide berdinean aplikatzeko. | 2.3.1. Barne araudia berrikusi eta behar dena egokitu. | Zuzendaria. | Maiatza. |

| 2.3. Helburua: Partaidetza sustatzea. | | | |
|--|---|------------------------------|------------------------|
| Zertarako | Jarduerak | Arduraduna | Denboralizazioa |
| Langile eta familiek informazioa izateko eta ekarpenak egiteko. | 2.2.1. Hitz Aho Guraso Taldearekin elkarlana burutu. | Zuzendaria. Artezkaritza. | Hilean behin. |
| | 2.2.1. Gurasoen Batzordea (gelako ordezkariak) eratzea. | Zuzendaria. Artezkaritza. | Azaroa. |

| 2.1. Helburua: Komunikazio gida bat sortzea. | | | |
|---|--|----------------------------------|------------------------|
| Zertarako | Jarduerak | Arduraduna | Denboralizazioa |
| Komunikazio egokia izateko norabide desberdinetan. | 2.1.1. Barneko nahiz kanpoarekiko komunikazio beharrak identifikatu. | Zuzendaritza. IKT arduraduna. | Maiatza. |

| | | | |
|--|---|----------------------------------|--|
| | 2.1.2. Barneko nahiz kanpoarekiko komunikazio behar horiei erantzuteko bideak zehaztu (noiz, nola, nork). | Zuzendaritza. IKT arduraduna. | |
|--|---|----------------------------------|--|

3. AZPIEGITURAK

| 3.1. Helburua: Espazioen birmoldaketa egitea; Udarregi eraikina eraberritzea. | | | |
|--|--|-------------------|------------------------|
| Zertarako | Jarduerak | Arduraduna | Denboralizazioa |
| Espazioen birmoldaketa egitea; Udarregi eraikina eraberritzea. | 3.1.1. Beharren identifikaziotik abiatuz, diseinuaren proiektua prestatu. | Zuzendaritza. | Ikasturtean zehar. |
| | 3.1.2. Exekuzioa aurrera eramateko baliabide ekonomikoen azterketa eta egiteko modua adostu. | Zuzendaritza. | Ikasturtean zehar. |

| 3.2. Helburua: Kanpo espazioak egoki antolatzea. | | | |
|---|---|-------------------|------------------------|
| Zertarako | Jarduerak | Arduraduna | Denboralizazioa |
| Kanpo espazioak egoki antolatzea. | 3.2.1. Beharren identifikaziotik abiatuz, diseinuaren proiektua | Zuzendaritza. | Ikasturtean zehar. |

| | | | |
|--|--|---------------|--------------------|
| | prestatu. | | |
| | 3.2.2. Exekuzioa aurrera eramateko baliabide ekonomikoen azterketa eta egiteko modua adostu. | Zuzendaritza. | Ikasturtean zehar. |